




LIBURUA

Oraindik



PALESTINA

JOE SACCO

ITZULT.: JULEN GABIRIA

ASTIBERRI, 2023

BESTIAK LIBURUTEGIA

Oraindik desjabetzen dizkiete lurrak, oraindik suntsitzen dizkiete etxeak, oraindik mozten dizkiete olibondoak”, idatzi zuen Joe Saccok 2001 urtean, baina berdin balio digu 2024an ere. Eta *Palestina* komikiak nonbaitera eramaten bazaitu, hain justu ere segida horretara da, etengabeko indarkeriaren bihotzera. Norbait kartzelan egon da hirugarrenez, norbaiten osaba torturatu egin dute, berriri, norbaitzuen aitonak desjabetu zituzten, norbaiten alaba hil egin dute herritarren aurka erabilitako gas negar eragilearen ondorioz.

Indarkeriazko segida horren momentu jakin batean kokatzen gaitu istorioak: 1991 eta 1992 urteen bitartean, lehenengo intifada indarra galtzen ari zen

garaian. 1993 eta 1995 urteen artean argitaratu ziren lehenengoz bederatziz istorioak, eta 2001 urtean Edward Said pentsalari palestinar-amerikarrak idatzirik sarrerarekin ikusi zuten argia denek. Saidi bere semeak gomendatu zizkion komikiak, eta Saidek guri. Bitartean, seigarren kapituluak, Saccok Said gomendatuko digu. Eta serendipia txiki horrek bi pertsona lotzen ditu, Palestina ulertzeko ezinbestekoak iruditzen zaizkigunak. Hori guztia Astiberriek ekarri digu, Julen Gabiriak euskaratuta.

Bederatziz istorioetan Saccok sortutako izen bereko protagonistak bi hilabete egingo ditu Palestinan. Eta guk pertsonaia jarraituko dugunez, haren begiradak gurea baldintzatuko du beti. Baita

egiten dituen gogoeta, noizbehinka, gorrotagarriek ere. Halaber, ezinbestean, indarkeria haren bitartez iritsiko zaigu, beti segurtasun distantzia batera. Mendaldeko begirada horren iragazkiak tarteka deseroso sentiaraziko gaituen arren –desagertuko ez dena–, iragazkiak iragazki, indarkeria kolonialaren gordina izango da.

Egin *flash forward* eta 30 urte geroago indarkeriak ez du etenik izan. Are okerragoa, badirudi oraindik ez duela goia jo. Komikia klasiko bat da. Ez zen inoiz berandu iritsiko euskarara, baina egungo egoeran badirudi gu gabiltzala berandu. Hartu ditzagun kaleak, eta indarkeria kolonialaren segidaren aurrean, eutsi diezaigun protesten segidari. ●